

ZABALKETA 01 KOADERNOA :

HONDAMENDI NATURALEN ARRISKUAK MURRIZTEA FILIPINETAN

DATU GEOGRA- FIKOAK

Filipinak Asiako hego-ekialdeko herrialde bat da, jatorri bolkanikoa duten 7.000 uharterek baino gehiagok osatua. 2015ean, 13. postuan zegoen munduko herrialderik populatuenen zerrendan, **100 milioi biztanle baino gehiagorekin**; horietatik % 53, 25 urtetik beherakoak.

Kulturalki askotarikoa, 100 talde indigena baino gehiago dituen herrialde bat da, bakoitza bere



hizkuntza eta ohiturekin. Tagaloaz gainera -hizkuntza nagusia-, 170 hizkuntza inguru mintzatzen dira Filipinetan.

Klima tropikala du, oso beroa eta hezea urte osoan.

Euritea ekainean hasi eta azarora arte luzatzen da, eta ohikoak dira garai horretan tifoia,

euri jasa eta haize indartsuekin. Klima

aldaketa globalak eraginda azken hamarkadetan ozeanoetan gertatzen ari den tenperatura igoeraren ondorioz, **tifoiek energia handiagoa metatzen dute eta gero eta bortitzagoak eta suntsitzaileagoak** dira.

BARANGAYAK

Zabalketa Garapenerako Gobernuaz

Kanpoko Erakundea lanean ari da Bohol uhartean, **Philippine Center for Civic Education and Democracy (PCCED)** tokiko bazkidearekin elkarlanean. Uhartean 47 udalerri ditu. Udalerri bakoitza barangay-etan zatituta dago, herrixka edo auzo unitatetzat har daitezkeenak.

Landa eremuko barangayetan, **300-600 lagun** bizi dira, eta biltzarra egiten dute hilean behin edo bi hilean behin barangayari loturiko kontuez aritzeko. Hiru urtean behin, beren buruzagiak hautatzen dituzte demokratikoki: **kapitaina, kontseilariak eta** hainbat arlotako **ofizialak** (osasuna, elkadura, segurtasuna, bakea



eta ordena, etab.). Emakume gutxiak lortzen dute gairatzea gizartean oraindik nagusi den matxismoak barangayetan edo udal gobernuetan ardura karguak izateko ezartzen dituen oztopoak.

Barangay bakoitzeko agintariak **urteko aurrekontu** bat dute, herrialdearen gobernuak ezarritakoa, udal gobernuarekin koordinatuta familien beharrei erantzuteko. Dena dela, oro har, barangayetako kapitainek eta kontseilariak apenas ezagutzen dituzten kudeaketa publiko egoki baterako eta aurrekontua eraginkorki administratzeko behar diren prozedurak eta mekanismoak.

Barangayek, halaber, gizarte zibila antolatzeke beste modu batzuk ere badituzte, lanbide sektoreei lotuak eskuarki: arrantza, nekazaritza, garraioa edo merkataritza, besteak beste.

OSASUNA ETA HEZKUNTZA

Herritarrek pairatzen dituzten gaixotasun ohikoenak **higiene baldintza eskasen** eta **bizitokiaren prekaritatearen** ondorio dira (material errustikoez eginiko etxeak: hormigoizko blokeak oinarrian, egurra eta kanabera txirikordatuak paretetan, eta kalamina sabaian). Zabalketa lanean ari den eremuetan –landa eremuak–, ia etxe guztiek badute argindarra, baina ez urrik, eta hurbilen dituzten iturri publikoetara joan behar dute osasun berme gutxiko ur bila. Emakumeen eta haurren zeregina izan ohi da. Gainera, etxe batzuetan ez dago komunik, ezta saneamendu eta estolderia sistemarik ere, eta eurite garaian lokatza zikina pilatzen da etxe inguruetan eta lurrezko bideetan.

Parasitoek eragindako **urdaile-hesteetako gaixotasunen** eta turberkulosia bezalako **arnas gaixotasun akutuen** intzidentzia oso handia da. Ohikoak dira ere herrialde guztian eltxoek transmititutako gaixotasun **tropikalak**, hala nola **malaria, dengea** eta **zika**, ur geldiak dauden leku ez oso osasungarrietan batez ere.

Filipinek osasun sistema publikoa badute ere, pazienteak bere gain hartu behar ditu proben, botiken eta ospitaliza-

zioaren gastu guztiak. Gastu horiek gehiegizkoak dira familia askorentzat, eta **petrikiloengana** jotzen dute horrenbestez, medikuntza naturala eta sinesmen espiritualak konbinatuta antzinako metodoak erabiltzen dituztenak gaixotasunak sendatzeko.



Landa eremuetako barangayek **osasun zentro txikiak** besterik ez dituzte, astegun batzuetan bakarrik aritzen diren medikuntza orokorreko langileekin, batik bat haurdunaldien eta jaioberrien jarraipenaz eta haur txertaketaz arduratzen direnak. Osasun zentro horiek arta anbulatiorako oinarritzko materialak eta medikamentuak dituzte: hala nola analgesikoak, antibiotiko orokorrak, sendatzeko materialak, seruma,

etab. Hala eta guztiz ere, kolektibo zaurgarrienak (haurrak eta emakumeak) dira baldintza higieniko-sanitario txarrak gehien pairatzen dituztenak. 2012ko datuen arabera, jaiotzen diren 1.000 haurretatik 30 hil egiten dira 5 urte bete aurretik, eta 10 emakumeetatik bat gutxi gorabehera amatasunaren ondorioz hiltzen da.

Hezkuntzari dagokionez, azken urteetan gora egin du alfabetatze tasa nazionalak (irakurtzen eta idazten dakien biztanleria) eta gaur egun ia % 100ekoa da, gizonetan nahiz emakumeetan. Datu horiek onak badira ere, landa eremuetan **urria da ikasgela eta irakasle kopurua** ikasle kopuru handiarentzat, eta adin eta ezagutza maila desberdineko ikasleak elkartzen dituzte ikasgela berean. Sarritan, horri gehitu behar zaizkio irakasleen formakuntza desegokia, testuliburu nahiz informatika tresneria falta eta ikasgelen egoera kaskarra, ikasteko giro egokirako traba direnak. Horren guztiaren ondorioz, **irakaskuntzaren kalitatea txarra** da.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

Nekazaritza eta arrantza dira landa eremuetako familien jarduera ekonomiko nagusiak. **Kokondoan** kokoak eguzkitan uzten dituzte lehortzen, eta soltean saltzen dira olio egiteko. Arroza da beste labore garrantzitsuenetako bat (urperatutako terrazetan hazten da), eta herriarren elikaduraren oinarria da, arrainarekin batera. **Nekazaritza familiarra** da nagusi, lursail txikietan eta makineriarik gabekoa, eta zama abereak dira laguntza bakarra. Familia batzuek lekaleak eta barazkiak ere ekoizten dituzte lursailaren zati txiki batean.

Itsasertzeko barangayetako biztanleek **artisans arrantza** egiten dute, egurrezko txalupa txiki motordunetan, amuak eta sareak erabilia. Emakumeak, etxeko lanez ez ezik (sukaldea, umeen zaintza, etab.), arraina udal merkatuan saltzeaz ere arduratzen dira, eta eskuratzen duten diru apurra erabiltzen dute beren baratzeetan ekoizten ez dituzten elikagaiak, garbiketa produktuak, etab. erosteko.

Familiak ia egunean bizi dira, hain da txikia haien eguneko errenta, eta ez dute ahalmenik aurrezteko eta larrialdiei eta ustekabeko gastuei aurre egiteko (arreta medikoa, etxe konponketak, etab.).

INGURUMENA



Mangladiak itsasertza babesten dute itsasoaren erasotik

Filipinek oso biodibertsitate natural aberatsa dute, lehortarra nahiz itsastarra. Zehazki, Bohol uharteak baso tropikal oparoak ditu, hegazti, ugaztun eta narrasti barietate ugari, itsas hondo aberats bat koralezko arrezifeekin, etab.

Zoritxarrez, **baliabide naturalen ustiapena**, biztanleriaren oinarritzko beharretarako (elikagaiak, egurra sukaldatzeko eta etxeak eta arrantza ontziak eraikitzeko...), ingurumen hondamendi handia eragiten ari da. Adibidez, kokondoan landaketa oihan eta baso eremuak suntsitzen ari da. Gehiegizko arrantzaren eta geraldian dagoen jarduera turistikoaren eraginez, hainbat itsas espezie desagertzen eta modu egokian tratatzen ez diren hondakin kantitate handiak sortzen ari dira, urak eta lurra kutsatzeaz gainera.

Bestetik, ez da ahaztu behar ingurumenak duen **babes eginkizun** garrantzitsua zenbait fenomeno naturalen aurrean: tifoia, lurrikarak, itsasikarak edo uholdeak. Zehazki, mangladiak neurririk gabe mozteak eta dinamita bidezko arrantzaren ondorioz arrezifeak hondatzeak babesik gabe eta arriskuan uzten ditu ingurune naturala eta pertsonak.

Nazio eta eskualde mailako legeak badaude ere ingurumen babesaren alorrean, arau horiek betetzea herriarren eta tokiko agintarien inplikazioaren mende dago. Gaur egun, ingurumen kontzientzia nahiko apala da, eta **ingurumen arloko kudeaketa ez da gai garrantzitsua bat gobernu programetan.**

Ingurumen heziketa ere hezkuntza programetatik at dago.



"Banka", artisau arrantza ontzia

HONDAMENDI NATURALAK

2013ko urrian, Richter eskalan 7.2 graduko magnitudea zuen **lurrikara** batek Bohol uhartea astindu zuen. Ia 200 hildako eragin eta eraikinen eta errepideen % 25 suntsitu zituen. Hilabete geroago, **Haiyan supertifoia** 300 km/h-tik gorako haizeekin astindu zituen Bisayak (Bohol uhartea barne hatzen duen uharte multzo bat), **10.000 hildako baino gehiago** eragin zituen eta **etxerik eta ogibiderik gabe utzi zituen milioika pertsona**.

Egun batzuk lehenago tifoia iristear zela iragarri bazen ere, tokiko agintariak eta herritarrek ez zeuden prestatuta tamaina horretako larrialdi bati aurre egiteko, eta ez zuten ez azpiegitura egokirik, ez ezagutzarik ezta erreskate talderik ere. Babesgabetasuna ia erabatekoa izan zen landa eremuetan, eta barangayetan ez zuten ez larrialdietarako tresneriarik (irratia, sokak, linternak...) ez oinarritzko material sanitarioik. Herritarrek ez zekiten zer egin hondamendia gertatu aurreko uneetan, ezta ondoren ere, beren buruak babestu eta kalteak ahalik eta txikienak izan zitezen.

Hondamendiaren ondorengo asteetan, Filipinetako armada eta nazioarteko agentziak komunikazio bideak konpontzen aritu ziren, eta kanpaina ospitaleak eraikitzen. Ebakuazio azpiegiturarik ez zegoenez, etxerik gabe gelditu ziren familiak hainbat astez egon ziren plastikozko olanez eraikitako kanpamentuetan, **pilatuta eta gutxieneko osasun baldintzarik gabe**. Egoera bereziki txarra izan zen haurrentzat eta emakumeentzat, eta asko handitu zen genero eta familia indarkeria pairatzeko arriskua.

Filipinetan 2010ean onartutako lege batek udal gobernuak eta barangayak behartzen ditu beren aurrekontuaren % 5a erabiltzera hondamendi arriskuen kudeaketan eta murrizketan. Hala ere, funts horiek ez dira nahikoak, eta beti ez dira ondo administratzen, ezagutza faltagatik eta agintarien arteko koordinazio eskasagatik. Gainera, askotan, udal gobernu batzuek **arriskuak kudeatzeko eta murrizteko planak** egiten badituzte ere, ez dituzte kontuan hartzen gizarte eta ingurumen ezaugarriak, ezta bereziki zaurgarriak diren taldeen egoera eta baldintzak ere. Azken batean, lege eta planifikazio tresna horiek ez dira baliagarriak gizartea hobeto antolatuta eta prestatuta egon dadin hondamendiei aurre egiteko.

Horiek horrela, **Zabalketa Elkartea** eta **Philippine Center for Civic Education and Democracy** Filipinetako haren tokiko bazkidea lanean ari dira Bohol uharteko landa eremuko barangayetan, arazoan analisi batetik abiatuta arazo **horiek konpontzeko estrategiak abiarazteko, arreta berezia** jarritz pertsona zaurgarrienengan.

Gero eta sarriagoak eta indartsuagoak diren hondamendi naturalen testuinguruan, Boholeko gizonen eta emakumeen ongizatea bermatzeko, ezinbestekoa da **haien gaitasunak eta baliabideak indartzea, arriskuak txikitze eta inpaktuak arintze**.



Tífoi indartsuak palmondoak bota eta eraikuntzak suntsitu zituen

“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkartea eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta “Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen” elkarlanaren esparruan.

Agilea: Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Zabalketa eta Philippine Center for Civic Education and Democracy

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina D.L. SS-691-2019

Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.
www.zabalketa.org

